

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

| SAILA / DEPARTAMENTO                             | ATALA / SECCIÓN                            | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                           |
|--------------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna | 05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea | 232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna |
| 09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad          | 05. Igualdad y Derechos Ciudadanos         | 232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres.            |

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (Bizkaiko Foru Aldundia 2000. urtetik dabil beren-beregi horretan lanean) foru-politiken ardatz nagusi gisa berresten da; hala, 2007. urtean Zuzendaritza Nagusia sortu zuen, zeinak aurreko legegintzaldiaren amaierara arte barne hartzen baitzituen Bizkaiko herritarrek beren eskubideez gozatzeko eta mota guztietako diskriminazioak desagerrarazteko beharrezkoak ziren politika guztiak.

Berdintasunerako Foru Plana oinarritzko tresna izan da Aldundian berdintasun-politikak garatzeko. 2021eko ekainean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana onetsi zen. Plan horretan, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren alde 2024ra bitartean foru-sail batzuen eta besteen jarduera gidatuko duten lan-ildoak bildu dira.

Gainera, 2018an, indarrean jarri zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Bizkaiko Foru Sektore Publikoaren berdintasun-politikak arautzeko esparrua ezartzen duena eta Berdintasunerako Zuzendaritzaren ibilbide-orria adierazten duena.

Foru Arauaren edukietan oinarrituta, Berdintasun Zuzendaritzaren bi lan-esparru bereiz ditzakegu:

Barnekoa: Foru Sailen jardueretan genero-ikuspegia sartzea helburu duten ekintzak; modu horretan generoaren zeharkakotasuna bermatuko da.

Kanpokoak: Bizkaiko politikan, ekonomian, gizartean, kulturean, kirolean, etab. funtsezkoak diren eragileentzako ekintzak, berdintasun-politikak garatzeko eta abiarazteko parte har dezaten, eta oro har herritarrentzat, emakumeek hainbat gizarte eremutan duten partaidetza eta berdintasuna indartuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian sentsibilizatuz.

La igualdad de mujeres y hombres (en la que la Diputación Foral de Bizkaia viene específicamente trabajando ya desde el año 2000) se revalida como eje fundamental de las políticas forales con la creación en 2007 de una Dirección General que englobaba hasta el final de la pasada legislatura todas las políticas para el disfrute efectivo de los derechos por parte de la ciudadanía de Bizkaia y la erradicación de cualquier tipo de discriminación.

El plan Foral para la Igualdad ha sido un instrumento básico para el desarrollo de las políticas de igualdad en la Diputación. En junio de 2021 se aprobó el VI Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se recogen las líneas de trabajo que van a regir la actividad de los distintos departamentos forales en aras a la igualdad efectiva de mujeres y hombres hasta 2024.

Además, el año 2018 entró en vigor la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, que establece el marco de regulación de las políticas de igualdad del Sector Público foral de Bizkaia en materia de igualdad de mujeres y hombres y señala la hoja de ruta de la Dirección de Igualdad.

En base a los contenidos de la Norma Foral, podemos distinguir dos planos de trabajo de la Dirección de Igualdad.

Interno: Acciones cuya finalidad es incorporar la perspectiva del género a la actividad de los diferentes Departamentos Forales, garantizando la transversalidad de género.

Externo: Acciones dirigidas a agentes clave en la vida política, económica, social, cultural, deportiva... de Bizkaia con objeto de buscar su participación en el desarrollo y puesta en marcha de políticas de igualdad, y a la población en general potenciando la participación de la mujer en los distintos ámbitos sociales y la Igualdad y sensibilizando en materia de igualdad de mujeres y hombres.



## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO                                    | ATALA / SECCIÓN                                   | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                                  |
|---------------------------------------------------------|---------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna</b> | <b>05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea</b> | <b>232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</b> |
| <b>09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad</b>          | <b>05. Igualdad y Derechos Ciudadanos</b>         | <b>232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres</b>             |

Aldundiaren barruan egindako Lan Planari dagokionez, zeharkako ikuspegia indartzen jarraitu dugu.

2022. urtean zehar, sailek ekintzak egikaritu dituzte; era berean, Berdintasunerako Zuzendaritzan zenbait lantalde sortu dira, ekintza espezifikoetarako hainbat esparrurekin. Hala, Funtzio Publikoarekin lan egin da sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa berrikusten. Gainera, Foru Sektore Publikoko erakundeek eta Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritzak landutako berdintasun-estrategiarekin jarraitu da.

Genero politiken zeharkakotasunaren eremuan, tresnarik egokienetako bat, eta halakotzat onartu da nazioarte mailan, genero ikuspegia duten aurrekontuena da.

Horrekin lotuta, oraingo Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak 2023ko Aurrekontuen Foru Arauaren generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena egin du.

Horretarako, Berdintasunerako Zuzendaritzak, Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean, aurrekontu-proiektu bat koordinatu du genero ikuspegia kontuan hartuz; hartara, 2023ko aurrekontuetan, genero ikuspegia kontuan hartu da aurrekontu programa guztiak ezartzen orduan.

2014ko urtarrilaren 1ean Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, jarri zen indarrean. Honen bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. 2020an, Berdintasunerako Zuzendaritzak aurreko ebaluazio txosten horiek jasotzen eta horiek izapidetzearen ondoriozko kontsultak artatzen jarraitu du.

A nivel interno, dentro de la propia Diputación el Plan de Trabajo desarrollado, ha continuado con el refuerzo del enfoque transversal.

Durante el año 2022, los departamentos han ejecutado sus acciones la ejecución de las acciones, a la vez que se han propiciado grupos de trabajo de la Dirección de Igualdad con diversas áreas para acciones específicas. Así, se ha trabajado con Función Pública en la revisión del protocolo de acoso sexual y acoso por razón de sexo. Además, se ha continuado la estrategia de igualdad con las entidades del Sector Público Foral junto con la Dirección de Buen Gobierno y Transparencia.

En el ámbito de la transversalización de las políticas de género, una de las herramientas más adecuadas y así reconocida internacionalmente es la de los presupuestos con perspectiva de género.

En esta línea, la Dirección general de Igualdad ha elaborado el informe de evaluación previa de impacto en función del género de la Norma Foral de Presupuestos 2023.

Para ello, la Dirección de Igualdad ha coordinado junto con el departamento de Hacienda y Finanzas la continuación de un proyecto de presupuestación con perspectiva de género, de modo que en los presupuestos 2023, todos los programas presupuestarios se han presupuestado con perspectiva de género.

El 1 de enero de 2014 entró en vigor el DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En el año 2020, la Dirección de Igualdad ha seguido recibiendo estos informes de evaluación previa y atendiendo a las consultas derivadas de su tramitación.



**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                    | ATALA / SECCIÓN                                   | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                                  |
|---------------------------------------------------------|---------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna</b> | <b>05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea</b> | <b>232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</b> |
| <b>09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad</b>          | <b>05. Igualdad y Derechos Ciudadanos</b>         | <b>232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres</b>             |

Berdintasunaren arloan prestakuntza eskaintzea langileak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4//2018 Foru Arauak ezarritako betebeharrarako gaitzeko gakoetako bat da.

Berdintasunerako Zuzendaritza lankidetzan aritu da Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza-plan bat diseinatu eta gauzatzeko, zeina karrerako eta lanpostuko prestakuntza-eskaintzan zehaztu baita 2022. urtean.

Kanpoko eremuan, aurrez ikusitako helburuak lortzeko, aldez aurretik hasitako zereginekin jarraitu da eta, horretarako, eremu desberdinetan jardun dute, hala nola emakumezkoen elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntza ekonomikoa ematean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren printzipioa eta genero-ekitatea sustatzen duten proiektuak eta jarduerak garatzeko.

Beraz, 2022ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdi publikoaren esparruan, BFAk honako proiektu-kopuru hau onartu zuen:

- Emakumeen Elkartek: 26
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak: 45

Gainera, guztira emakumeen elkarreentzako 2 diru-laguntza izendun eta bi diru-laguntza zuzen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako lau diru-laguntza zuzen izapidetu dira, berdintasun proiektuak garatzeko.

Emakumeen Elkarteei eta Irabazteko asmorik gabeko erakundeei emandako zenbatekoa 693.149,52 eurokoa izan da.

Elkarteen mugimenduekin lankidetzan aritzeko, tokiko politiketan laguntzeko eta 4/2018 Foru Arauak ezarritakoa betetzeko, egungo

La formación en materia de igualdad es una de las claves para la capacitación del personal en las obligaciones establecidas por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y por la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Dirección de Igualdad ha colaborado con el Servicio de Selección y Formación Profesional para diseñar y ejecutar un plan de formación de puesto en materia de igualdad de mujeres y hombres que, en el año 2022 se ha concretado en una oferta de formación de carrera y de formación de puesto.

En el ámbito externo, para la consecución de los objetivos previstos se ha continuado con las tareas emprendidas con anterioridad, mediante la actuación en distintos campos tales como el apoyo económico a asociaciones de mujeres y entidades sin ánimo de lucro que desarrollen proyectos y actividades que fomentan el principio de igualdad de mujeres y hombres y la equidad de género.

Así, en el marco de la convocatoria pública de subvenciones para el ejercicio 2022, el nº de proyectos apoyados por la DFB fueron:

- Asociaciones de Mujeres: 26
- Entidades sin ánimo lucro: 45

Además, se han tramitado un total de 2 subvenciones nominativas y dos directas a asociaciones de mujeres y cuatro subvenciones directas a entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de proyectos de igualdad.

La cantidad ejecutada en los proyectos de asociaciones de mujeres y entidades sin ánimo de lucro ha sido de 693.149,52 euros.

Para colaborar con el movimiento asociativo, colaborar en las políticas locales y cumplir con lo establecido en la Norma Foral 4/2018, la actual



## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO                             | ATALA / SECCIÓN                            | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                           |
|--------------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna | 05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea | 232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna |
| 09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad          | 05. Igualdad y Derechos Ciudadanos         | 232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres             |

Berdintasunerako Zuzendaritzak partaidetza prozesu bati ekin zion 2019an, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzeko eta Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea sortzeko.

2020an, Foru Dekretu bidez onartu ziren Kontseilua eta Sarea arautzeko erregelamenduak.

Emakumeen Partaidetza Kontseiluaren kasuan, 2022. urtean bi biltzar egin dira eta batzorde kudeatzailearen eta bi lantaldeen (indarkeria matxistaren taldea eta pandemiaren ondorioen taldea) bilerak mantendu dira. 2022. urtearen amaieran, kontseiluan 40 elkarte daude.

Sarearen kasuan, 2022an indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatzeko lau jardunaldi egin dira, eta tokiko berdintasun teknikarien taldearekin lan egin da. 2022ko abenduan, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarera atxikitako udalerriak 73 dira.

Tokiko lanari dagokionez, Sarea eratzeaz eta abian jartzeaz gainera, Berdintasunerako Zuzendaritzak laguntza-deialdi bat onartu du; deialdi horretan, 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien 28 proiektu onetsi dira, eta 153.796,41 euro eman dira guztira.

Bestalde, 2022. urtean, Berdintasunerako Zuzendaritzak genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko 2021eko ekitaldiko espedienteak likidatu ditu, eta 2022. urteko funtsen banaketa kudeatu du, Bizkaiko 112 udalerrien artean; guztira 1.341.440,27 euro banatu ditu. Zenbateko horri 2021. urteko funtsetako 13.345,55 euro gehitu behar izan zaizkio, 2022ko ekitaldiaren kargura izapidetu diren hiru udalerriei lotuta, 2021eko aurrekontuan horiek izapidetzeko orduan egon den atzerapenaren zioz.

Dirección de Igualdad inició en 2019 un proceso participativo para la creación del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia y la creación de la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia.

En 2020 se aprobaron por Decreto Foral los reglamentos reguladores del Consejo y de la Red.

En el caso del Consejo de participación de las Mujeres, durante el año 2022 se han celebrado dos asambleas y se han mantenido las reuniones de la comisión gestora y de dos grupos de trabajo (grupo de violencia machista y grupo de consecuencias de la pandemia. Al finalizar el año 2022, las asociaciones del consejo son 40.

En el caso de la Red, durante el año 2022 se han realizado cuatro jornadas de sensibilización en materia de violencia machista y se ha trabajado con el grupo de técnicas de igualdad locales. A diciembre de 2022, son 73 los municipios adheridos a la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia.

En cuanto al trabajo a nivel local, además de la constitución y puesta en marcha de la Red, la Dirección de Igualdad ha aprobado una convocatoria de subvenciones en la que se han aprobado 28 proyectos de municipios de menos de 7.000 habitantes, por un importe total ejecutado de 153.796,41 euros.

Por otra parte, durante el año 2022, la Dirección de Igualdad ha liquidado los expedientes de los Fondos del Pacto de estado contra la violencia de género del ejercicio 2021 y ha gestionado la distribución de los Fondos correspondientes al año 2022 entre los 112 municipios de Bizkaia, por un importe total de 1.341.440,27 euros. A este importe ha habido que sumar la cantidad de 13.345,55 euros de fondos del año 2021 correspondientes a tres municipios que se han tramitado a cargo del ejercicio 2022 por un retraso en la tramitación de los mismos en el presupuesto de 2021.



## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO                                    | ATALA / SECCIÓN                                   | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                                  |
|---------------------------------------------------------|---------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna</b> | <b>05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea</b> | <b>232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</b> |
| <b>09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad</b>          | <b>05. Igualdad y Derechos Ciudadanos</b>         | <b>232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres</b>             |

Sentsibilizazioari dagokionez ezarritako betekizunetan, Zuzendaritzaren xede nagusiak egun esanguratsu jakin batzuk izan dira.

Hala, emakumeen nazioarteko eguna hautatu dugu, Zirgari Sariak emateko ekitaldia egin dadin, Bizkaian hainbat erakundek berdintasunaren alde betetzen duten zeregin aintzatetsi nahian.

Azaroaren 25ean erakundeen arteko Beldur Barik kanpainan hartu genuen parte; halaber, mezu hori sendotze aldera, kanpaina propioa egin dugu, zeinak emakumeen ahalduntzea eta gizonak indarkeria matxistaren kontrako borrokan inplikatzeko izan baititu ardatz.

Gainera, Zuzendaritzak kanpaina espezifiko bat egin du jai inguruetan sexu erasoei aurre egiteko. Kanpaina hori gazteen artean garatu da, aisia eta jai giroetan.

Berdintasunerako Zuzendaritzak ahalegin handia egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko sentsibilizazioan, informazioa ematean, prestakuntzan eta hausnarketan. Hala, 45 jarduera egin dira: gogoeta-egunak, azterketak argitaratzea, sentsibilizazio-ekintzak erakusketen, dokumentalen eta abarren bidez, gizonentzako prestakuntza-ekintzak, emakumeekin eta kirolarekin erlazioatutako esku-hartzeak, emakumeekin eta kulturarekin erlazioatutakoak, emakumeekin eta landa-ingurunearekin erlazioatutakoak...2022. urtean, jarduera horietako asko Emakumeak proiektuaren baitan sartu dira. Ondoren, 2023ko urtarrilean, Emakumeak kongresua ospatu da.

2022an gainera Bizkaiko indarkeriaren mapa eguneratu da. Mapa horretan, hilketa matxistak eta emakumeen kontrako erasoak bildu dira udalerrira.

Emakumeen aurkako indarkeriaren lan-ildoari dagokionez, Zuzendaritzak Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren lana koordinatu du eta datuak biltzen, analisiak egiten eta osoko bilkuraren

En el marco de sus cometidos en materia de sensibilización, la Dirección ha centrado sus esfuerzos en torno a varios días significativos.

Así, hemos elegido el día internacional de las mujeres para realizar el acto de entrega de los premios Zirgari Sariak, de reconocimiento a la labor de diversas entidades de Bizkaia por la igualdad.

En el caso del 25 de noviembre hemos participado en la campaña interinstitucional Beldur Barik y reforzado ese mensaje con una campaña propia que se ha centrado en el empoderamiento de las mujeres y la implicación de los hombres contra la violencia machista.

La Dirección ha abordado además una campaña específica para combatir las agresiones sexuales en espacios festivos que se ha desarrollado entre la gente joven en espacios de ocio y fiesta.

La Dirección de Igualdad pone mucho esfuerzo en la sensibilización, información, formación y reflexión en torno a la igualdad de mujeres y hombres. En esta línea, se han desarrollado 45 actividades: jornadas de reflexión, publicaciones de estudios, acciones de sensibilización en formato de exposiciones, documentales etc., acciones formativas dirigidas a hombres, actuaciones vinculadas a las mujeres y el deporte, las mujeres y la cultura, las mujeres del entorno rural... En el año 2022, gran parte de estas actuaciones se ha enmarcado en el proyecto Emakumeak, que ha precedido al congreso Emakumeak celebrado en enero de 2023

Durante el año 2022 se ha actualizado además el mapa de la violencia de Bizkaia, que recoge por municipios los asesinatos machistas y las agresiones contra las mujeres.

En la línea de trabajo de Violencia contra las mujeres, la Dirección ha coordinado el trabajo del Observatorio de Violencia Machista de Bizkaia y ha continuado con su labor de recopilación de datos,



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK  
Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO                             | ATALA / SECCIÓN                            | FUNTZIONALA / FUNCIONAL                           |
|--------------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna | 05. Berdintasuna eta Herritarren Eskubidea | 232.114 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna |
| 09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad          | 05. Igualdad y Derechos Ciudadanos         | 232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres             |

eta adierazleen lantaldeetako kide diren erakundeekin bilerak egiten jarraitu du. Gainera, Behatokiaren webgunea berrikusi da.

Gainera, Berdintasun Zuzendaritzak sexu esplotaziorako salerosketaren biktima izan diren eta bizirik irten diren pertsonekin esku-hartze soziala egiteko planeko ekintzak egikaritzen eta koordinatzen jarraitu du.

2022. urtean, DenBBora sarea lantzen jarraitu dugu. Sare horrek gizarte-eredu berri bat sustatzen du, denboraren erabilera berriek bizitza, erantzukizuna eta enpresen eraginkortasuna uztartzen laguntzeko xedez.

Horiexek dira zuzendaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan 2022ko ekitaldian gauzatutako oinarritzko helburu eta jarduerak, eta horien guztien ezaugarria berdintasuna benetan lortzea da, gizarte-esparru guztietan Berdintasuneko politika bermatzeko oztopoak kentzen lagunduta eta gizarte osoa inplikaturik.

realización de análisis y con la celebración de las reuniones de pleno y con las entidades integrantes del grupo de trabajo de indicadores. Además, se ha procedido a revisar la página web del Observatorio.

Además, la Dirección de Igualdad ha continuado con la ejecución y coordinación de acciones del plan de intervención social con víctimas y supervivientes de trata con fines de explotación sexual.

Durante al año 2022 se ha continuado con el trabajo de la Red DenBBora, red que promueve un nuevo modelo social en el que la innovación en los usos del tiempo favorezca la conciliación de la vida, la corresponsabilidad y la eficacia empresarial.

Estos son los objetivos y actividades fundamentales llevados a cabo en el ejercicio 2022 en materia de igualdad de mujeres y hombres por la Dirección, cuyo denominador común es lograr la efectiva y real igualdad, colaborando en la eliminación de los obstáculos en aras a asegurar una política de igualdad en todos los ámbitos sociales, involucrando al conjunto de la sociedad.